



**BARNE**  
**ARAUDIA**

**AURKIBIDEA**

<b>IKASLEENTZAKO ARAUAK ETA JARRAIBIDEAK .....</b>	<b>2</b>
1. PUNTUALTASUNA .....	2
2. ESKOLA-ORDUAK .....	2
3. EZ-ETORTZEAK .....	2
4. JOLAS-ORDUAK .....	2
5. ERRETZEA .....	3
6. HARREMANAK .....	3
7. INSTALAZIOAK ETA IKASTETXEKO ZEIN IKASKIDEEN MATERIALA .....	3
8. SEGURTASUNERAKO ELEMENTUAK .....	3
9. MUGIKORRAK ETA GRABAZIO - BALIABIDEAK DITUZTEN APARATUAK .....	3
10. SARRERAK ETA IRTEERAK .....	4
11. JANGELA .....	4
12. LIBURUTEGIA .....	4
13. GARRAIOA .....	4
14. GREBAK eta GELDIALDI- DEIALDIAK .....	5

## **IKASLEENTZAKO ARAUAK ETA JARRAIBIDEAK**

### **1. PUNTUALTASUNA**

- Gelara ordurako iritsi behar da.
- Berandu iritsiz gero, gelako atea jo eta bertan dagoen irakasleari azalduko dio ikasleak berandutzearen arrazoia.
- Berandutzea beti justifikatu behar da. (Arlo berean justifikatu gabe 3 aldiz berandu etortzea jokabide desegokitzat hartuko da).
- Agiria tutoreari eskatu behar zaio.
- Eskola-ordu tartetean gelan egon behar da.

### **2. ESKOLA-ORDUAK**

- Eskola-ordua hasterako lanerako behar den materiala eskura eduki behar da.
- Irakasleak agindutako lana egitea ezinbestekoa da.
- Eskola-orduaren dinamika errespetatu behar da.
- Azterketetan, lanak egiterakoan e.a. zintzotasunez jokatu behar da, norberak edo besteen lana kopiatu gabe. (Horrelakoetan irakasle bakoitzak erabakiko du hartuko beharreko neurriak.)
- Txirrinak jo eta 10 minutu pasa ondoren, irakaslea gelara etorri ez bada, gelako ordezkariak Idazkaritzara jaitsi behar du horren berri ematera.
- Komunera joateko irakaslearen baimena behar da.

### **3. EZ-ETORTZEAK**

- Eskola-orduetara, irteeretara edota jangelara ez etortzea beti justifikatu behar da.
- Ikasleak, hutsegitea justifikatzeko gurasoek sinatutako agiria tutoreari ekarri behar dio 2 eguneko epean.
- Ustekabeko ondorezaren kasuan eta, bereziki, ikasleak
  - Irteeraren bat edo probaren bat (azterketa, ahozko proba, lana entregatzea e.a.) egin behar badu, familiak goizeko 1. orduan ikastetxera deitzea eskatzen da.

### **4. JOLAS-ORDUAK**

- Jolas-orduetan ikasleak patiora irten, liburutegira joan edota gelan eta pasabideetan gera daitezke.

- Ez da onartuko arriskutsua izan daitekeen jolas edo jokorik.
- Gelan geratzekotan behar bezala egon behar da, zarata atera edota iskanbilarik sortu gabe.
- Pasabideetan lasai ibili behar da.
- Jolas-orduetako jolasteko materiala atezainari eskatu behar zaio eta, jolas garaia amaitutakoan, hartutakoa atezaintzan utzi behar da.

## 5. ERRETZEA

---

Erabat debekatuta dago ikastetxeko eremuan erretzea.

## 6. HARREMANAK

---

- Irakasleek, ikastetxeko langileek, jangelako begirale zein langileek esandakoa edo agindutakoa betetzea ezinbestekoa da.
- Ikastetxeko hezkuntza komunitateko kide guztiak (ikaskideak, irakasleak, ikastetxeko langileak, jangelako begirale zein langileak e.a.) errespetuz tratatu behar dira eta eurekin zintzotasunez jokatu behar da.

## 7. INSTALAZIOAK ETA IKASTETXEKO ZEIN IKASKIDEEN MATERIALA

---

- Ikastetxeko instalazio eta material guztiak zaindu eta era egokian erabili behar dira, txukun eta egoera onean mantenduz.
- Ikaskideen materiala ezin da erabili euren baimenik gabe.
- Ikasleek beren gela eta bertako altzariak zein bestelako elementuak txukun eta egoera onean mantendu behar dituzte.
- Gelako egoeraren akta, gutxienez, hiruhilabetekoan behin bete behar da.

## 8. SEGURTASUNERAKO ELEMENTUAK

---

Ikasleek ezin dute ikastetxearen segurtasunerako elementurik (alarma, extintoreak, larrialdietarako atea...) erabili. (Hauei nahita kalteak egitea edota behar ez bezala erabiltzea bizikidetzaren aurkako jokabidetzat (arau-hauste larria) hartuko da).

## 9. MUGIKORRAK ETA GRABAZIO - BALIABIDEAK DITUZTEN APARATUAK

---

- Mugikorraren erabilera: irakasleak baimendutakoan eta baimendutako jarduerak gauzatzeko irakasleak eska dezake ikasleek euren mugikorrak erabiltzea. Ikasleren batek mugikorrik ez balu, ikaskideren batenarekin moldatuko litzateke. **Ez da inolaz ere derrigorrezkoa izango ikasleak mugikorra edukitzea.**
- Mugikorrak irteera pedagogikoetara eraman daitezke eta irakasleek baimendutakoan erabili ahalko dira.

- Irakasleek baimendu gabeko mugikorren edota grabaziorako balio duen tresnen beste edozein erabilera erabat debekatuta dago. Mugikorra edo debekatutako tresnarik ikusiz gero, kendu egingo zaie eta ikastetxean gordeko da ikaslearen gurasoak bere bila etorri arte.

## 10. SARRERAK ETA IRTEERAK

---

- Ikasleek patioko atetik sartu eta atera behar dute.
- Ikastetxetik ezin da irten baimenik gabe.

## 11. JANGELA

---

- Jangelako arduradunak, begiraleak eta langileak begirunez tratatu behar dira eta haiek esandakoa edo agindutakoa egitea ezinbestekoa da.
- Jangelako materiala zein janaria era egokian erabili behar da.
- Gutxieneko kopuru bat jan egin behar da, salbuespenak salbuespen.
- Jangelako jarduera normala ez da oztopatu behar.
- Hilabete berean jangelako erregistro koadernoan 2 idatzizko ohartarazpen pilatzea jokabide desegokizat (arau-hauste arina) hartuko da.
- **Neurri zuzentzaileak:** jangelako araudian daude zehaztuta.

## 12. LIBURUTEGIA

---

- Eskola-orduetan liburutegira irakaslearekin sartu behar da.
- Liburutegiko funtzionamendua ez da oztopatu behar.
- Debekatutako aparatuak ezin dira erabili.
- Liburutegian ezin da jan.
- Liburutegiko instalazio, altzari edo materialak era egokian erabili behar dira.
- Liburutegitik maileguan bakarrik atera daitezke liburuak eta maileguan hartutakoa epe barruan entregatu behar da.
- Liburutegiko arduradunaren esana bete behar da.
- **Neurri zuzentzaileak:** liburutegiko araudian daude zehaztuta.

## 13. GARRAIOA

---

- Autobusean bakoitza bere eserlekuan eserita joango da.
- Autobuseko materiala zaindu egin behar da.
- Autobusean ezin da jan.

- Autobusean doazen irakasle zein langileak errespetuz tratatu behar dira.
- **Neurri zuzentzaileak:** garraiorako araudian daude zehaztuta.

#### **14. GREBAK ETA DEIALDIAK**

---

IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN 201/2008 DEKRETUKO 13. artikuluko 3.atalak honela dio: *“Ikastetxeak bere Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo bere Barne Araudian ezartzen dituen baldintzetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik gorako ikasleek eskoletara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira jokabide desegokitzat, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko eta horiei erantzuteko ez da neurri zuzentzaileak ezarriko, betiere biltzeko eskubidea baliatuta hartu badira eta alde zuzentzaileak ikastetxeko Zuzendaritzari jakinarazi bazaizkio, ikastetxeak ezarritako dituen arauak jarraiki”.*

Beraz, Dekretuak 3.mailatik gorako ikasleei aitortzen dien eskubideaz baliatzeko, ezinbestekoa izango da ikastetxean ezarritako honako PROZEDURA hau jarraitzea.

#### **Deialdi eguna baino 3 eskola-egun lehenago (GOIZEKO LEHEN JOLAS – ORDUAN)**

1. Ikasleek Zuzendaritzari deialdiari buruzko informazioa eman.
  - Deialdia nork egin duen.
  - Deialdiaren hezkuntza-edo prestakuntza-helburua.
  - Deialdiak ikastetxearekin duen lotura.
2. Ikasleek emandako informazioa egiaztatu ondoren, Zuzendaritzak prozedura hastea onetsiko du, eta informazioa [idatzizko dokumentuan jasoko du. \(I. ERANSKINA\)](#)

#### **Deialdi eguna baino 2 eskola-egun lehenago (GOIZEKO LEHEN JOLAS – ORDUAN)**

1. Deialdia konbokatu duten ikasleek, Zuzendaritzaren onespena jaso ondoren, geletako ikasleen ordezkariekin (delegatuekin) bilera egingo dute deialdiari buruzko informazioa emateko.
2. 3. eskola-orduan, gelan dagoen irakaslearen aurrean, ordezkari bakoitzak dagokion ikasle taldeari deialdia jakinaraziko dio, betiere horretarako inolako eragozpenik ez badago (azterketak, ekintza osagarriak ... Kasu honetan ordezkariak 4. eskola-orduan emango dio informazioa bere taldeari).
3. Bozketa egin behar bada, gelan informazioa eman ondoren egingo da, betiere, irakaslearen aurrean.
4. Bozketa egiteko ezinbestekoa da ondorengo prozedura jarraitzea:
  - Bozketa gelara egingo da, gelan dagoen irakaslearen aurrean.
  - Erabiliko diren boto-txarteletan BAI/EZ jarriko da edo ZURIZ utziko da.

- Botoak irakaslearen aurrean zenbatuko dira.
  - Deialdiak aurrera egiteko emandako botoen batura, boto baliogabeak eta zuriak barne, bozketaren emaitza baliozko izan dadin, quorum hau beharrezkoa da: 3 eta 4.mailako ikasle guztiek emandako botoen erdiak gehi bat.
  - [\*\*Emaitzak aktan jasoko dira \(II. ERANSKINA\)\*\*](#). Akta gelako ordezkariak eta irakasleak sinatuko dute.
  - Ordezkariak emaitzen akta Zuzendaritzara eramango du. Zuzendaritzan emaitza guztien emaitzak aktan jasoko dira.
5. Emaitza ez da inoiz loteslea izango eta ikasleek eskolara joateko duten eskubidea gauza dezakete.
6. Ikastetxeak klaseak emango ditu, agertzen ez den ikasle kopurua edozein izanda ere.
7. Deialdiari buruzko informazioa pasabideetako kortxoetan bakarrik jar daiteke.

### **Deialdi eguna baino 2 eskola-egun lehenago (ARRATSALDEAN)**

Zuzendaritzak [\*\*gurasoei gutuna euskaraz / carta a los padres \(III. ERANSKINA\)\*\*](#) bidaliko die, honako helburu hauekin:

- **Deialdiaren eta bozketaren informazioa ematea:** norik egin duen deialdia, arrazoia eta bozketaren emaitza.
- **Deialdiarekin bat datozen ikasleen gurasoei euren seme-alaben eskolara hutsegitea justifikatzeko eskatzea,** Dekretuko 23. artikuluko 2. atalean dioenari jarraiki:

*“Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-hutsegitez: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak. Horretarako, ikastetxean ezarritako arauen arabera onargarria den justifikazioa aurkeztu beharra dago, Dekretu honetako 13.3 eta 14.3 artikuluetan ezarritakoaren aurka joan gabe.”*

- **Egun osoko grebaren ordezkariaren bat proposatzen denean eta, ondorioz, ikasleek ikastetxetik atera behar badute, [\*\*ikasleek atera behar badute, ikastetxetik ateratzeko baimen idatzia \(IV. ERANSKINA\)\*\*](#) eskatuko da,** Dekretuko 14.artikuluko 3.atalak dioenari jarraiki:

*“Ikasleak artikuluko honetan eta aurrekoan adierazitako eskubideak betetzeko eskola-eremutik ateratzekoak badira, gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute, baldin eta adinez txiki badira. Idazki horretan, ikastetxetik ateratzeko baimena zer ordutan ematea eskatzen den adierazi beharko da, hala badagokio, erantzukizun zibilak zehazteko, eta derrigorrezkoen ondorengo hezkuntzetako ikasleen kasuan izan ezik; azken horien kasuan, gurasoen edo legezko ordezkarien idazki bidezko baimen orokorrarekin nahikoa izango da.”*

### **Deialdi egunaren bezperan (GOIZEAN)**

Ikasleek euren hutsegitea justifikatzen duen gurasoek sinatutako agiria, greba egunaren bezperan ekarri behar diote tutoreari.

**15. ERANSKINAK**

**ZUZENDARITZAK GEREBA- DEIALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO**

**DOKUMENTUA**

<b>DEIALDIA EGIN DUENA</b>	
<b>DATA</b>	
DEIALDIAREN HEZKUNTZA - HELBURUA	
DEIALDIAK IKASTETXEAREKIN DUEN LOTURA	
<b>ANTOLATUTAKO EKINTZAK</b>	
<b>JARDUERAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>

**IKASLEAREN IZEN - ABIZENAK**

**SINADURA**



**GELAKO BOZKETAREN EMAITZAREN AKTA**

**PROPOSAMENA:**

**BOZKETAREN EMAITZAK**

GELA	IKASLE KOPURUA	BAI	EZ	ZURIZ	BALIORIK GABE

**SINADURAK**

TUTOREA edo IRAKASLEA

GELAKO

ORDEZKARIA

DEBAN, 20..... (e)ko ..... ren ..... (e)an

Guraso agurgarriok:

IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN 201/2008 DEKRETUKO 13.3. artikulua dioen bezala, 3 eta 4.mailako ikasleek biltzeko eta greba egiteko eskubidea dute, betiere ikastetxeak horretarako ezarritako prozedura jarraituz.

**Horrela bada, 3. eta 4. mailako ikasleek, euren eskubideaz baliatuz, 2013ko maiatzaren 30ean egun osorako deituriko grebarekin bat egitea erabaki dutela jakin arazi digute, LOMCE legearekiko desadostasuna adierazteko.**

Bozketaren emaitza ez da inoiz loteslea izango eta ikasleek eskolara joateko duten eskubidea gauza dezakete. Ikastetxeak eskolak emango ditu, agertzen ez den ikasle kopurua edozein izanda ere.

Ikasleek egindako bozketaren emaitza ondorengo izan da:

IKASLEAK GUZTIRA	87
DEIALDIAREN ALDE	85
DEIALDIAREN AURKA	2
ZURIZ	0
BALIOGABEAK	0

Ikasleak greba egin behar badu, bere guraso edo legezko tutoreek ikaslearen ikastetxera hutsegitea justifikatzeko ondorengo agiria bete eta sinatu egin behar dute. (Dekretuko 23.2.artikulua)

**OHAR GARRNTZITSUA:** Ikasleek euren hutsegitea justifikatzen duen gurasoek sinatutako agiria, greba egunaren bezperan ekarri behar diote tutoreari.

Nik, \_\_\_\_\_ eta  
 \_\_\_\_\_ NANarekin, jakinarazten dut DBHko  
 \_\_\_\_\_ taldeko den nire seme /alaba den  
 \_\_\_\_\_, ez dela  
 ikastetxera joango 20.....ko .....ren.....(-e)an, (egun osoan, 5. eta  
 6.orduan...) greba egingo duelako.

Adeitasunez,

ZUZENDARITZA

Deba, 2013ko maiatzaren 28an

Estimados padres:

El artículo 13. 3 del DECRETO 201/2008 DE LOS DERECHOS Y DEBERES DE LOS ALUMNOS otorga a los alumnos el derecho a reunirse y a secundar las convocatorias de huelga y paros que se convoquen, siempre y cuando se atengan al procedimiento establecido en el centro.

**Haciendo uso de dicho derecho, nuestros alumnos de 3º y 4º nos han comunicado que se adhieren a la convocatoria de huelga general de estudiantes convocada para el día 30 de mayo de 2013 para mostrar su desacuerdo con la ley de reforma educativa LOMCE**

El resultado de la votación ha sido el siguiente:

NUMERO DE ALUMNOS	87
A FAVOR DE LA CONVOCATORIA	85
EN CONTRA DE LA CONVOCATORIA	2
VOTOS EN BLANCO	0
VOTOS NULOS	0

El resultado de la votación no es vinculante para los alumnos, por lo que quien no secunde la convocatoria de la huelga puede ejercer su derecho a asistir a las clases. En el centro se impartirán las clases sea cual sea el número de alumnos que asistan al centro ese día.

Si un alumno/a va a faltar a clase por secundar la citada convocatoria, sus padres o tutores legales deben justificar dicha falta de asistencia. (Artículo 23.2 del Decreto) Para ello deben cumplimentar y firmar el siguiente justificante.

**NOTA IMPORTANTE: Los alumnos deben entregar este justificante a su tutor la víspera del día de la huelga convocada.**

Yo, \_\_\_\_\_ con  
 DNI \_\_\_\_\_ pongo en su conocimiento que mi hijo-hija  
 \_\_\_\_\_ del grupo \_\_\_\_\_ no  
 asistirá a clase el día \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de  
 \_\_\_\_\_ (durante todo el día, a 5ª y a 6ª hora...) porque va a secundar  
 la huelga.

Atentamente,

ZUZENDARITZA Deba, 2013ko maiatzaren 28an

**GREBA/DEIALDIAREN ONDORIOZ IKASTETXETIK ATERATZEKO BAIMENA**

Ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 14.artikuluak dioenaren arabera, 3. DBHtik gorako adin txikiko ikasleen guraso edo legezko ordezkarien baimen idatzia behar da euren seme-alabek GREBA edo GELDIALDI DEIALDIAREN ONDORIOZ IKASTETXETIK ATERATZEKO. Horregatik, ondorengo dokumentua betetzea eta sinatzea eskatzen zaizue.

ZUZENDARITZA

---

DEIALDIA:

DATA:

ORDUAK:

Nik, \_\_\_\_\_ k, NAN

duenak,                      baimena                      ematen                      diot

\_\_\_\_\_ nire seme-alabari

ikastetxetik ateratzeko goian aipaturiko deialdian parte hartu ahal izateko./ikastetxera

ez etortzeko goian aipaturiko deialdiarekin bat egiteko.

SINADURA

DEBAN, 20\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_ (e)an.